

UPV/EHUko OCW kurtsoetarako Egileentzako Gida

Irakasleentzako eskuliburua

(2021/12)



Honako eskuliburu hau Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko eCampusak landu du. Lan hau Creative Commons-en Nazioarteko 3.0 lizentziaren mendeko Azterketa-Ez komertzial-Partekatu lizentziaren mende dago. Lizentzia horren kopia ikusteko, sartu <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/legalcode.eu> helbidean.

Aurkibidea

1.- Zer da OCW kurtso bat eta zein material erabil dezaket.....	2
2.- Kurtsoaren egitura eta luzera	3
3.- OCW kurtsoetan besterenak diren edukien erabilera.....	6
4. Gomendatutako Estilo gida.....	7
5.- OCW kurtsoen plataforma	10
6.- OCWk erabiltzen duen lizentzia: Creative Commons	10
7.- Espedienteen kudeaketa.....	11
8.- Praktika egokien adibideak.....	11
9.- Zalantzak eta kontsultak.....	12

1.- Zer da OCW kurtso bat eta zein material erabil dezaket

2008ko urtarrilaren 24an Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) OpenCourseWare proiektuaren partaide bihurtu zen. Proiektu honek argitalpen elektronikoaren bidez ezagutzaren eta jakintzaren hedapena era irekian bultzatzea du xede

Materialak **ISSN 2255-2316 zk.** dun UPV/EHUko OCW atarian argitaratzen dira (<http://ocw.ehu.eus>), bi balditzapean:

- Internet bitartez eskuragarriak izango dira, inolako gako beharrik gabe edo erabiltzailearen erregistroa eskatu gabe.
- "[Creative Commons BY-NC-SA](#)" lizentzia baten bitartez hornituko dira.

Orain artekoan 398 kurtso argitaratu dira [OCW-UPV/EHU](#) atarian aurreko deialdietan garatu direnak. Aurten hamahirugarren OCW deialdia iragartzen dugu.

OCW kurtso bat era ireki eta doakoan autoikaskuntza eta kontsultarako helburua lortzeko asmoz argitaratutako unibertsitate ikas materiala da.

Edukiak ez dute zertan irakasgai jakin batekin bat etorri behar, baina horrela izanez gero, irakaskuntza gida berri bat egin beharko da OCW proiektuari egokituz. Hori dela eta, OCW edukiak ez dira irakasgai bateko apunteak edo pdf fitxategien bilduma izan behar baizik eta, autoikaskuntzara bideratutako prestakuntza unitateak.

Materialak egileenak izan behar dira, jatorrizkoak eta [Creative Commons BY-NC-SA](#) lizentzia baten bitartez hornituko dira UPV/EHUko OCW atarian (<http://ocw.ehu.eus>). Edukiak sortu, editatu eta plataformara igo irakasle taldeak egingo du eta eCampus eta Irakaslan Ebaluatzeko Unibertsitateko Batzordeak (IUEB) berrikusiko dituzte

Ondorengo taulan proiektu honetan erabili beharko dituzuen web helbideak azaltzen zaizkizue:

TRAINERA-OCW aplikazioa	Eskaerak egin eta espedienteak kontsultatzeko	http://gestion.ehu.es/ocw
OCW plataforma	Kurtsoak editatzeko	http://ocw.ehu.eus
Sinadura-ontzia aplikazioa	Argitalpen baimena emateko	https://gestion.ehu.es/bandejadefirma

2.- Kurtsoaren egitura eta luzera

eCampusak, OCW bulego den heinean, kurtsoek izan beharreko atalak finkatzen ditu proiektuaren **autoikaskuntza eta kontsultarako** helburua lortzeko asmoarekin. Gomendatutako luzera ondokoa da: 5 eta 7 ordu/asteko 6 eta 12 aste bitartean.

Kurtsoak irakasleek egingo dituzte [OCW-UPV/EHU](http://ocw-upv.ehu.es) (Moodle) plataformara igoz. Kurtsoek eduki teoriko eta praktikoa izango dituzte, eta eduki ezberdinen artean oreka izan eta elkar osatuko dira.

Materialak egileenak izan behar dira, jatorrizkoak. Horrela ez bada eta besterenak diren materialak (irudi, grafiko edo eskemak) erabiliz gero, jabetza intelektualari buruzko legediak ezarritako mugak kontuan izan beharko dira

Edukiek OCW proiektua, kurtsoaren izena, irakasle taldea eta lizentziari aipamena izan beharko dituzte. Eduki guztiek eredu bera izatea gomendatzen da.

Kurtsoek izan beharreko egitura ondoko hau da eta atal bakoitzak ezarritako zehaztapenak bete beharko ditu:

- Aurkezpen bideoa
- Irakaskuntza gida
- Ikasteko materialak
- Gomendaturiko Irakurgaiak eta Bestelako Materialak
- Praktikak, Ariketak eta Ekintzak
- Autoebaluazio prozedurak
- Irakasleak
- Bibliografia

0. Atala. Aurkezpen bideoa

Bideoaren gomendatutako iraupena 5 minututako izango da. Bideoak jarraitu beharreko gidioak ondoko atalak izango ditu:

- Ongi etorria
- Irakasle taldearen aurkezpena
- Nori zuzendua dagoen
- Kurtsoaren aurkezpena eta edukien deskribapen labur bat
- Ikasketa burutzeko gomendioak
- Agurra

Bideoa grabatuta eta ocw.ehu.eus plataforman eskuragarri izan behar da edizioa bukatu aurretik (2. Fasea).

eCampusek irakasle taldekideei aurkezpen bideoa grabatzeko baliabideak eskuragarri jartzen dizkie eta ematen die Leioan dagoen polimedia salan aurkezpen bideo bat grabatzeko aukera. Zerbitzuak Bizkaiko Campusean (Leioan, Liburutegi Nagusiaren eraikinean, 6. Solairua) duen polimedia gelan egitea posible izango delarik.

Ondorengo estekan polimedia aretoari buruzko informazioa, grabazioari buruzko aholkuak eta bideo adibide bat azaltzen dira (<http://www.ehu.eus/eu/web/cvb/polimedia-aretoa>).

1. Atala. Irakaskuntza Gida

Aurkezpen bideoarekin batera, Irakaskuntza Gida da erabiltzaileak izango duen ikastaroaren lehen dokumentua. Hori dela eta, oso garrantzitsua da jarraibide batzuk jarraitzea eta beharrezko informazio guztia atal zehatz batzuetan biltzea. Era argi, zehatz eta hurbilean idatzi behar izango da.

Pdf formatudun dokumentua izango da eta ondorengo eskema jarraitu beharko du:

- **Sarrera** (Aurkezpena): sakonduko den gaiaren interesa eta ikastaroaren izenburua justifikatu
- **Nori zuzendua eta aurrebaldintzak**: ikastaroaren hartzaile izango direnen profila zehaztu. Ikastaroa jarraitzeko aholkatzen diren aurretiko ezagutza eta gaitasunak adierazi.
- **Gaitasunak**: ikastaroa gainditu ostean lortuko diren gaitasunak adierazi.
- **Ikastaroaren deskribapena**: ikastaroari buruzko aipamen orokorrak, edukiak landu dituen irakasle taldea, luzera, eskaini beharreko dedikazioa adierazi.
- **Gai-zerrenda**: Ikuspegi orokorra izatea ahalbidetzen duen ikastaroaren eskema. Ezarritako helburuekin koherentea izan behar du.
- **Metodologia**: ikasketa autonomo eta eraginkorra izateko argibideak. Ikastaroa jarraitzea ahalbidetzen duten ibilbide, estrategia eta/edo bideak zehaztea gomendatzen da. Proposatutako jarduera eta autoebaluazioei buruzko zehaztapenak ematea aholkatzen da.
- **Kronograma**: denboran jarduerak izango duten garapena erabiltzaileak bideratu eta autoikaskuntza errazteko. Jarduera ezberdinek asteka duten iraupena eta ordu kopurua azaltzen duen taula bat gehitzea gomendatzen da.

- **Materiala / Baliabideak:** ikastaroa jarraitu ahal izateko, ikastaroan dauden materialez gain, beharrezkoak diren material edo baliabideak adierazi. Autoikaskuntza ahalbidetzeko, eduki horiek erabilera orokorrekoak ez badira, aukerak gehitu beharko dira (bideoak, simulagailuak, laborategi birtualak...), ikasleek ezarritako gaitasunak lortzeko.
- Informazio gehigarria (aukerakoa).

Proposamena errealista eta kronograman zehaztutako arduraldira egokitu beharko da. Edonola ere, Irakaskuntza Gida era autonomoan egindako irakaskuntzara egokitua eta bideratua izan beharko da.

2. Atala. Ikasteko materiala

Irakaskuntza Gidan aipatutako gai-zerrendarekin bat etorriko da, ahal den neurrian proposatutako gaiak hurrenkera eta izena errespetatuko dutelarik.

Material hauek, testu edo bideo formatuan, sakondu edo lortu nahi den ikasketa helbururi buruzko **azalpentxo bat** izan beharko dute.

Ikasteko materialak ikasgaiak, aurkezpenak, bideoak izan daitezke- ikus-entzunezkoak lehenetsiko direlarik. Gomendatutako formatuak:

Eduki mota	Gomendatutako formatua
Testua	.pdf (EZ .doc)
Irudiak	.gif, .jpg .png (EZ .bmp)
Audio	.mp3
Bideoa	.mp4
Aurkezpenak	.pdf

3. Atala. Gomendaturiko irakurgaiak eta Bestelako Materialak

Erabiltzaileei beste iturri independente batzuetara- kurtsoa osatzen dutenez gain- sarrera azaltzea gomendatzen da. Eguneratuak eta behar bezala erreferentziatuta egongo dira.

Ahal den neurrian, edozein pertsonak kontsultatu ahal dituen baliabide askeak izatea gomendatzen da. Liburutegi eta argitaletxe birtualetako bertsio digitalean dauden dokumentuak bilatuz, beti ere, erabilera lizentziak baimentzen duen heinean.

4. Atala. Praktikak, Ariketak eta Ekintzak

Landutako eduki (Ikasteko Materialak) eta gaitasunekin (Irakaskuntza Gidan jasotakoak) lotura izan beharko dute. Erabiltzaileak eskatutakoa behar bezala egin eta ulertu duen jakiteko ekintza horien emaitzak igoko dira. Hau posible ez denean, balorazio irizpideak edo errubrika zehaztuko dira.

Auto ikaskuntza eredia jarraituz, **praktikak, ariketak eta ekintzak** atalean azaltzen direnak kurtsoan egiten ari diren pertsonak egiteko modukoak izan behar dute; hori dela eta, ezin izango dira talde lanak edo ahozko aurkezpenak proposatu. Ahal den neurrian, autoikaskuntza

ahalbidetzen duten baliabide interaktiboak (simulazio, laborategi birtualetara sarbidea, prozedura praktikoa edo esperimentalei buruzko bideoak etab.) sartzea gomendatzen da.

5. Atala. Autoebaluazio prozedurak

Erabiltzaileek edukien ulermen maila ezagutzeko baliagarriak dira. Azken ebaluazio test bat izango dute gutxienez, eta autoikaskuntzara bideratutako beste jarduera eta baliabideak baita.

6. Atala. Irakasleak

Egileei buruzko informazioa jasoko du. Telefono zenbakia edo posta elektronikoa bezalako datuak ez agertzea gomendatzen da, era irekian egindako argitalpena den heinean.

7. Atala. Bibliografia

Eguneratua egongo da eta kurtsoko edukien osagarri izan beharko da. Ahal den neurrian baliabide libreak izatea gomendatzen da, (baimentzen duen lizentziarekin) bertsio digitalean dauden liburutegi eta argitaletxe birtualetako dokumentua adibidez.

3.- OCW kurtsuetan besterenak diren edukien erabilera

Besterenak diren edukiak jabetza eskubideen araudipean daude, beraz hauek erabiliz gero, jabetza intelektualari buruzko legedia errespetatu beharko dute (*Apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Jabetza Intelektualari buruzko Legearen Testu Bateratua*¹).

Sarean aurkitutako edozein irudi edo baliabide ezin izango dira erabili aurretik egilearen baimena izan barik edo baimentzen duen lizentzia izan ezean. Lizentziarik zehazten ez bada, copyright-pean argitaratu dela ulertu beharko da.

Salbuespen gisa, legeak **aipu eskubidea** aurreikusten du: Zilegi da norberaren obra batean sartzea inoren idatzizko, soinu-entzunezko obren pasarteak, bai eta izaera plastikoa edo fotografiko figuratiboa duten obra bakartuak ere, betiere obrak lehendik jendarteratuak badira eta **aipu gisa edo haien azterketa edo iruzkina egiteko edo iritzi kritikoa emateko sartu** badira. Erabilera hori irakaskuntzan edo ikerketan egin ahal izango da bakarrik, txertatze horren xedeak justifikatzen duen neurrian eta erabilitako **obraren izena eta egilea** aipatuz."

OCW kurtsu batean ondokoa egitea baimentzen du:

- **Irudiak, diagramak eta beste baliabideak ilustrazio gisa:** gomendagarriena irudi aske edo jabari publikoan daudenak erabiltzea da². Beste aukera bat, *Google Imágenes* delakoak bilaketa

¹ <https://www.boe.es/buscar/pdf/1996/BOE-A-1996-8930-consolidado.pdf>

² (CC) Creative Commons lizentziapeko materialak aurkitzeko baliabideak: <https://biblioteca.ucm.es/edicionweb/bancos-de-imagenes>

aurreratua erabiltzea da, non erabilera eskubideei buruzko eremu bat azaltzen den eta lizentzi jakin bat kontuan izanik bilaketa egitea eska diezaiokegun. Irudi bakoitza egoki erreferentziatu beharko da oinean edo irudiaren baitan iturria eta berrerabiltzea ahalbidetzen duen lizentziara esteka ezarriz. Irudiak askeak edo irakasle talderenak direnean ere adierazita azaldu beharko da (ad. "Domeinu publikoa" eta esteka, "egileen irudia" ...).

Irudiak askeak ez badira edo jabari publikoan ez badaude, irakasle taldeak zein baldintzapean argitaratu den konprobatu beharko du eta kurtsuan erabiltzea baimentzen duen. Creative Commons lizentzietatik 3k baimentzen dute: BY, BY-NC, eta BY-NC-SA.³

Obra eratorria baimentzen ez duten Creative Commons lizentziak ez lirateke bateragarriak izango, hala nola: BY-ND; BY-NC-ND.

- Besteren edukiak aipu gisa: besterenak diren pasarteak erabiltzea onartzen du, beti ere lan osoarekin alderatuz gero, zati txikia baldin bada (gutxieneko portzentajea) eta iturria aipatzen bada.

Ezin dira eskaneatutako liburu eta dokumentu orriak sartu. Bestalde, biltegi edo errepositorio elektronikoetatik lor daitezkeen dokumentuek pertsona talde jakin batzuei (instituzio edo korporazio jakin batzuetakoak) deskargatzea ahalbidetzen die. Baina kontuan izan behar da, dokumentu hori ondoren beste gune batean (adibidez OCW portalea) berrerabiltzea debekatua egotea.

Ahal den neurrian, OCW kurtsuetan edukien bidezko erabilera egiten den web orrietara (adibidez, liburutegi, errepositorio, etab) estekak jartzea gomendatzen da baliabideak gehitu beharrenean.

Bukatzeko, egitasmo honetako partaideek sinatzen duten, hirugarren klausulan zera diola gogoratu:

"HIRUGARRENA. Konpromisoa hartzen du, beren erantzukizunaren pean, materialen jabetza intelektuala edukitzeko eta beren lanetan beste inoren materialak txertaturik egonez gero, haien aipamen eta erreferentzia egiteko, baita lizentzia hau emateko autoritatea izateko ere. Era berean, adierazten de kontratu honetako materialek eta haien moldaketek ez duela hartuta eta ez duela hartuko inongo konpromiso edo kargarik eskubideen kontra doanik."

4. Gomendatutako Estilo gida

Sortutako baliabideek irakurgarritasun ona eta irisgarritasuna errazteko ondorengo estilo aholkuak eta testu ezaugarriak kontutan izatea gomendatzen da:

- Esaldi errazak eta paragrafo labur eta ulerterrazak erabili.
- Atalak laburrak izan behar dira, testu bloke luzeegiak saihestuz .
- Letra lodia kontzeptu nagusiak nabarmentzeko erabili (gehiegizko erabilera alboratuz). Azpimarra alboratu.

³ **BY: Aitortu:** edukien iturriak aipatzera derrigortzen du.

NC: EzKomertziala: edukiekin irabazi ekonomikorik ez lortzea derrigortzen du.

ND: LanEratorririkGabe: edukiak elkarbanatzen uzten du baina inongo aldaketarik egin gabe.

SA: Partekatuberdin: lan eratorrien lizentzia jatorrizkoarenaren berdina izatea derrigortzen du.

- Testu blokeek ezker-lerrokatzea, lerroarte bakuna eta paragrafo arteko tarte bikoitza, Verdana letra mota 10 puntuko tamainarekin.
- Atalak eta azpiatalak bereizteko ondoko modua erabili: Titulu 1, Titulu 2, Titulu 3, etab.
- Taula eta zerrendak erabili irakurketa eta ulermena errazteko. Bakoitzak bere goiburua izan beharko du, zenbakiak egon eta azaltzen diren testuetan aipatu beharko dira.
- Grafiko, irudi eta eskemak erabili edukiak argitu eta/edo laburtzeko. Bakoitzak bere oina, zenbakia eta erreferentzia izan beharko du.
- Testua irudiztatzen duten irudi esanguratsu eta/edo adierazgarriak gehitu, soilik apaingarri direnak saihestuz.

Kurtsoko material guztiek estilo eta testu ezaugarri homogeneoak jarraituz sortuko dira.

Kurtsuan besterenak diren materialei aipua ahal den neurrian, dagokion bibliografia erreferentziarekin lotuko da dagokion zenbakiarekin kakotzak [2], parentesiak (2) edo goi-indize ² bidezko zenbakiaren bidez, orriaren oinera edo atalaren azkenean dagoen erreferentzi zerrendara daramana. Baliabide bera errepikatzen bada lehenengo aipuaren zenbakia adieraziko da.

Egilearen hitz zehatzak aipatzen baldin badira komatxoaren artean aurkeztuko dira eta testuaren bukaeran kakotzak, parentesiak edo goi-indize bidez orriaren oinera edo atalaren azkenean dagoen erreferentzi zerrendara daramana.

Kurtsoa osatzen duten erreferentzia guztiek estilo berdina jarraitu behar dute. Ondoren, erreferentzia bibliografikoa adierazteko gomendatutako adibideak jasotzen dira.

Monografia bati aipua:

ABIZENA(R), Izena. *Liburuaren izenburua letra etzanez*. Edizioa. Argitalpen tokia: argitaletxea, urtea.

Adibideak:

BERNSTEIN, L. *El maestro invita a un concierto*. 4. ed. Madril: Siruela, 2004

APOSTOL, T. M. *Análisis matemático*. 2. ed. Barcelona: Reverté, 1988.

Monografia, kongresu edo mintegi baten atalari aipua:

ABIZENA(R), Izena. Kapituluaren izenburua. ABIZENA(R), Izena *Kapitulua jasotzen duen lanaren izenburua letra etzanez*. Edizioa. Argitalpen tokia: argitaletxea, urtea, kapituluaren lehen eta azken orriak.

Adibideak:

BOEKAERTS, M. La evaluación de las competencias de autorregulación del estudiante. MONEREO, C. (koord.) *Pisa como excusa: repensar la evaluación para cambiar la enseñanza*. Barcelona: Graó, 2009, 55-69

AGUILERA KLINK, F. La transición hacia una nueva cultura del agua. ENCINA, J. eta BÁRCENA, I. (koord.) *Democracia ecológica: formas y experiencias de participación en la crisis ambiental*. Sevilla: Universidad Libre para la Construcción Colectiva, 2006, 185-201

Aldizkarietako artikuluei aipua:

ABIZENA(R), Izena. Artikuluaren izenburua. *Aldizkariaren izenburua letra etzanez*. Artikulua jasotzen duen faszikuluaren urtea, liburuki edo/eta artikulua jasotzen duen faszikuluaren zenbakia, artikuluaren lehen eta azken orriak.

Adibideak:

KELCHTERMANS, G. Teacher vulnerability: Understanding its moral and political roots. *Cambridge Journal of Education*, 1996, liburukia. 26 zkia. 3, 307-323.

CONNOLLY DE PERNAS, Eduardo. Guillermo Brown o la acracia infantil. *Hibris: Revista de Bibliofilia*, 2003, zkia. 15 32-39

Argitaragabeko lan bati aipua (Tesia, Tesinak, Gradu Bukaerako Lanak, Master Bukaerako Lanak, etab.)

ABIZENA(R), Izena, *Lanaren izenburua letra etzanez*. Argitaragabeko lan mota, azaltzen den akademia-erakundea, tokia, urtea.

Adibideak:

ARDEVOL GONZÁLEZ, J. F. *Flora y vegetación del municipio de Icod de los Vinos (Tenerife)*. Argitaragabeko Doktoretza Tesia, La Laguna-ko Unibertsitatea, 1990.

ALMOHALLA GALLEGO, Francisca. *El Señorío de Osuna en Archidona, (1831-1862)*. Argitaragabeko lizentziaturako memoria, Universidad Nacional de Educación a Distancia, Ceuta, 1986.

Interneteko baliabideari aipua:

Interneten dagoen baliabide bati egindako aipuak ondoko datuak izan behar ditu:

- Izenburua [online] eta dokumentuaren egileak.
- Dokumentua kontsultatu den eguna.
- Eskuragarritasuna eta kokapena: helbide elektronikoa (URL) edo DOI. DOI izanez gero URLa ez aipatu.

Adibideak:

Baliabide orokorrak (portaleak, blogak, irudiak, etab.):

Euskal Herriko Unibertsitatea/Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea [online]. [Kontsulta: 2018-02-01]. Eskuragarri: www.ehu.eus

UNESCO.org. [online]. [Kontsulta: 2017-01-21]. Eskuragarri: http://portal.unesco.org/es/ev.php-URL_ID=29011&URL_DO=DO_TOPIC&URL_SECTION=201.html

Monografiak:

LAU, J. Directrices internacionales para la alfabetización informativa [online]. México: Veracruzana Unibertsitatea. [Kontsulta: 2009-01-21]. Eskuragarri: <http://bivir.uacj.mx/dhi/DoctosNacioInter/Docs/Directrices.pdf>

VILLALOBOS, José. Memoria declarada de la música [online]. Sevilla: Kronos, 2003. [Kontsulta: 2011-06-29]. Eskuragarri: <http://institucional.us.es/civico/otrasediciones/pdf/memoria.pdf>

DOIekin adibidea:

TARAZONA, P., Cuesta, J.A. eta Martínez-Ratón, V. Density functional theories of hard particle systems. Non: Theory and Simulation of Hard-Sphere Fluids and Related Systems [online]. Ángel Mulero (ed.). Berlin: Springer, 2008, pp. 247-341 [kontsulta: 2013-10-30]. Lecture Notes in Physics, liburukia 753. Eskuragarri: http://dx.doi.org/10.1007/978-3-540-78767-9_7

Aldizkarietako artikulua:

ORTIZ, José R. Proyecto Hilbert: Lewis Carroll y la lógica de las maravillas [online]. Boletín de la Asociación Matemática Venezolana, 1998, 5. liburukia, 1.zkia [Kontsulta: 2011-6-28]. Eskuragarri: <http://www.emis.de/journals/BAMV/conten/vol5/v5n1p61.pdf>. ISSN 1315-4125

SABATÉ BEL, F. La isla-continente que quisieron convertir en continente-isla. Rincones del Atlántico [Online], 2005, 2.zkia. [Kontsulta: 2011-6-29]. Eskuragarri: <http://www.rinconesdelatlantico.com/num2/isla-continente.html>

WILLET, P. The Victorian Women Writers Project: the library as a creator and publisher of electronic texts. The public-access computer systems review [online], 1996, 7. liburukia, 6.zkia [Kontsulta: 2011-6-29]. Eskuragarri: <http://epress.lib.uh.edu/pr/v7/n6/will7n6.html>

5.- OCW kurtsoen plataforma

OCW-UPV/EHU plataforma Moodlen oinarritzen da. Beraz, lan egiteko era eGela edo eGelaPI plataformetako bera da, ezberdintasun bakarra proiektuaren filosofia jarraituz interakzioan oinarritzen diren baliabide eta jarduerarik ez izatea da.

Zalantzarik izanez gero honen erabilerari dagokionean, eCampusek eGelarako sortutako materialak dituzue kontsultarako.⁴

6.- OCWk erabiltzen duen lizentzia: Creative Commons

OCW UPV/EHU ikastaro guztiak Creative Commons lizentziarekin argitaratzen dira. Materialak Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin lizentziari lotuta daude⁵:

Egileak erabiltzaileari baimena ematen dio:

- Erabiltzeko eskubidea eta material horiek diren horretan edo era egokitu batean banatzea.
- Erabiltzaileei lan eratorriak egiteko baimena eskaintzen die, beraien edizio, itzulpen edo aldaketa, beste egile batzuen materialak erantsiz edo elkartzuz

Egileak erabiltzailea behartzen du:

- Argitalpena helburu komertzialetarako ez erabiltzea
- Aipamen eskubidea egitean materialak jatorrizko egileari eta UPV/EHUri dagozkiola adieraztea
- Aldaketarik egin den adierazi
- Beraien ekarpenak lizentzia berdinpean eskaintzera behartzen du.

⁴ <https://www.ehu.es/eu/web/ecampus/eskuliburuak>

⁵ https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0/deed.es_ES

Jatorrizkoa edo egokitutako materiala berriro argitaratzen edo banatzen bada, hauek libreki beste erabiltzaile batzuei lizentzia berdinpean eskaintzera behartzen du.

7.- Espedienteen kudeaketa

TRAINERA-OCW (<http://gestion.ehu.es/ocw>) eskariak egin eta OCW espedienteak kudeatzeko erabiltzen de kudeaketa tresna da.

Espedientea izapide edo fase ezberdinetatik igarotzen da eta bakoitzean erantzule gisa inplikaturako pertsonaren parte hartzea eskatuko delarik (irakaslea, Saileko Zuzendaria, eCampusa, IUEB...).

Espediente baten egoera kontsultatzeko edo erantzule bezala azaltzen denak izapide bat egiteko, aplikaziora "Nire espedienteak" atalera jo eta dagokion izapidean sakatu beharko du.

Izapidez aldatzen den bakoitzean, sistemak posta elektronikoko bat bidaltzen dio izapide horren ardura duenari jarraitu beharreko azalpenekin administrador-cig-notes@ehu.es helbidetik.

Izapideak ondokoak dira:

- Eskaera erregistratua:OCW espedientearen hasiera da eta eskaera bat egitean sortzen da. Unibertsitateko erregistro elektronikoan sarrera bat sortzen da.
- Sailaren oniritzia
- eCampusek eskaera jaso du
- Eskaera onartu da-1go fasea
- eCampusek 1go fasearen berrikustea
- 2. Fasearen edizioa
- eCampusek 2. fasearen berrikustea
- Sailaren berrikustea
- IUEBra bidali
- Baimena emateko irakasleen sinadura
- Ziurtagiria

Informazio gehiago, aplikazioko "laguntza" atalean eskuragarri dago.

8.- Praktika egokien adibideak

OCW_UPV/EHUko ikastaroen artean praktika egokien eredugarri bezala aipaturako ikastaroen zerrenda:

GIZARTE ETA ZUZENBIDE ZIENTZIAK

- Técnicas de Intervención en Trabajo Social [2018/10][cas] (<https://ocw.ehu.es/course/view.php?id=486>)
- Economía Laboral [2018/10][cas] <https://ocw.ehu.es/course/view.php?id=481>

ZIENTZIAK

- Maths Basic Course for Undergraduates [2018/12][eng]
(<https://ocw.ehu.eus/course/view.php?id=468>)

IRASKUNTZA TEKNIKOAK

- "Ingeniaritzaren oinarri matematikoak" [2019/10][eus]
<https://ocw.ehu.eus/course/view.php?id=517>
- "Curso práctico para el análisis e inferencia estadística con Mathematica " [2019/10][cas]
(<https://ocw.ehu.eus/course/view.php?id=506>)
- Ingeniería del Software II [2018/10][cas] (<https://ocw.ehu.eus/course/view.php?id=483>)
- Utilizando Mathematica como apoyo al cálculo algebraico en los grados de Ingeniería [2018/10][cas] (<https://ocw.ehu.eus/course/view.php?id=477>)

9.- Zalantzak eta kontsultak

Ikastaroa prestatzen ari zaretela sor dakizuen edozein zalantza edo kontsulta OCW Bulegoari igorri beharko zaio ondoko helbidean: ecampus@ehu.eus.